

“EUSKARA, NIRE LAGUNA!!!”

5 eta 11 URTE arteko UMEENTZAT
LUDOTEKAN/HAURGUNEAN/KIDEGUNEAN/
ASTIALDI eta ESKAUT TALDEAN egiteko.



Kaixo monitoreak, hezitzaileak,...!!!

Urtero bezala, Kiribil Sarean
ludoteketan/haurgunetan/kidegunetan/eskaut eta astialdi
taldeetan egiteko ekintza bat antolatu dugu.

Helburu orokorra, umeekin euskararen erabilpena lantzea da.

EUSKARA MAITE DUGU...

...GUZTIOK EUSKARA ERABILI BEHAR DUGU!

5 eta 11 urte arteko umeentzat, marrazki lehiaketa bat antolatu dugu; pinturaren bidez euskara guztiona dala eta guztiok erabili behar dugula landuko dugu.

euskara gure hizkuntza da,
guztiok erabiltzeko eskubidea daukagu,
erabiltzen badugu galtzeko arriskuan ez da egongo,

Lehenengo beraiekin dinamika batzuk egitea animatzen zaituztegu, erreflexioan laguntzeko; eta gero, margotzeraaaaa...!!!

1.EKINTZA ANTZERKIA

Iraupena:
45 minutu.



Helburuak:

- Euskara eguneko edozein momentutan eta lekutan erabili dezakegula ikastea.
- Euskararen erabilera gure eskutan dagoela konturatzea.

Materialak:

- Irudiak (ereduak 1. eranskinean)
- Mozorroak eta oihalak
- Gelan dagoen materiala (mahaiak, aulkiak...)

Ekintzak:

- Irudietan dauden pertsonaiak erakutsiko ditugu.
- Ume bakoitzak pertsonai bat aukeratuko du (irakaslea, medikua, dendaria...) eta beste batzuk bakoitzak norbera izando da.
- Aukeratutako pertsonaiak mozerrotuko dira. Horretrako mozerro, oihal... eduki behar dira. Eta espazioan dagoen materiala ere erabil daiteke sekuentzian gertatzen den lekua simulatzeko.
- Antzezlan ezberdin egingo dira, sekuentzia laburrak egingez. Ume bat edo batzuk pertsonaiarengana joango dira, eta elkarriketa bat simulatuko dute. Horretarako, haiekin euskaraz izan ditzaketen elkarriketak prestatu beharko dituzte. Beharrezkoa izanez gero, begiraleek beste pertsonaia bat bezala parte hartu beharko dute, antzerkian laguntzeko.

Adibidea:

-Dendaria: *Egun on*

-Eroslea: *Egun on! Zelako hotza egiten duen kolean.*

-Dendaria: *Bai, asko freskotu du. Zer nahi duzu?*

-Eroslea: *Sagar kilo bat, mesedez.*

-Dendaria: *Gorriak edo berdeak?*

-Eroslea: *Zein da ezberdintasuna? Prezioa?*

-...



- Antzerki bakoitza egin eta gero, guztion artean egoera aztertuko dugu:
 - Zer hitz egin dezakegu euskaraz dendariarekin?
 - Zer galdera egin ditzakegu?
 - Nola agurtu gaitezke?
 - ...
-

2.EKINTZA

EUSKARARI HITZ GOXOAK ESAN!

- Ume bakoitzak begizta (lazo) bat edukiko du; hitz goxo (piropo) bat pentsatu behar dute euskerarentzat.
- Hitz goxoa, begiztan jarri behar dute... eta gero gelan eskegi dugun soka luze baten lotuko ditugu.
(adibidea, 2. eranzkina)
- Eskegitzen dugunea, proposatuko dugu idatzitakoa osenki esatea.

Iraupena:

15 minutu

Materialak:

- Soka, kordela, artilea
- Koloretako begiztak
- Errotulkiak



3.EKINTZA

IRUDIKATZERA

Iraupena:

Ordu erdi bat

Helburua:

- Euskara zenbat maite dugun modu alai baten adieraztea.
- Kiribil Sarea-ko marrazki lehiaketan parte-hartzea.

Materialak:

- Papera (A4)
- Margoak/errotulkiak/zerak

Ekintza:

Euskaraz hitz egiteko aukera dugun toki bat marraztu behar dugu (eskola, kalea, denda, medikua...).

Banakako edo taldeko lana izan daiteke.



1. ERANSKINA

MEDIKUA



FAMILIAREKIN



KIROLA EGITEN



1. ERANSKINA

TELEBISTA IKUSI



IKASTETXEAN/IKASTOLAN/ESKOLAN




1. ERANSKINA

LAGUNEKIN



DENDAN



1. ERANSKINA

JANTOKIAN



2. ERANSKINA

